



AGURAINGO ORIAMENDI LEZAO TALDEAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA 2024. URTERAKO

BILDUTA

Batetik, Raúl LOPEZ DE URALDE BALTASAR jauna, NA zenbakia 18.595.998S duena, Aguraingo Udaleko Alkatea den aldetik,

Bestetik, Jokin MARKINEZ SANCHEZ jauna, NA zenbakia 58.012.586P duena, Aguraingo Oriamendi Lezao Taldea (IFK: G-01322544) ordezkaria den aldetik,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.- Aguraingo Udalaren helburuetako bat kirola sustatzea dela

BIGARRENA.- Aguraingo Oriamendi Lezao Taldea, egun egoitza Aguraingo Foru kaleko 19 – 5. aretoan duena, erakunde pribatua, izaera juridikoduna eta irabazteko asmorik gabea dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan CD 0002932 zenbakiarekin eta Aguraingo Erakundearen Erregistroan 38 zenbakiarekin izena emanda dagoela eta helburu nagusia areto-futbola bultzatzea eta sustatzea duela.

HIRUGARRENA.- Aguraingo Udal txit gorenak Aguraingo Oriamendi Lezao Taldea aintzatesten duela honek bere historian egiaztatutako jardunbide luzeagatik, kirolaren bitartez garapen sozialerako plataforma delarik.

Hori dela eta, eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 232. eta 233. artikuluen arabera, ondokoa adostu dute:

HITZARTZEN DUTE

Lankidetz hitzarmen honen XEDEA da Udalak Aguraingo Oriamendi Lezao Taldeari 2024. urterako emango dion diru-laguntza zehaztea, elkarteak egingo dituen jardueri dagokienez, baita udal kirol-instalazioak doan erabiltzeko lagapena zehaztea ere, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta legezko testu horren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, Aguraingo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean eta diru-laguntzen Plan Estrategikoan ezarritakoarekin eta hurrengo baldintzekin bat etorrira:



KLAUSULAK

LEHENA.- Aguraingo Udalak, 2024. urteko aurrekontuaren barruan, 341.481.002 Kirol-taldeei Transferentziak partida izendunaren barruan, Aguraingo Oriamendi Lezao Taldearentzat 1.116,60 €-ko gehieneko diru-laguntza esleitu du.

Aipatu diru-laguntzak 2023-2024 denboraldiari dagozkion jarduerak egitetik eratorritako gastuak ordaintzeko baliatuko da.

BIGARRENA.- Erakunde bakoitzak konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

AGURAINGO UDALA

a) Laguntza ekonomikoaren esleipena

- 1.116,60 euroko gehieneko laguntza ekonomikoa esleitu du, 95,00 euroko hileko epeetan ordainduko dena 2023ko martxotik aurrera, eta 261,60 euro gordeko ditu abendurako, emandako diru-laguntzak justifikatu ondoren.
- Esleitutako laguntza ekonomikoak klubak egiten dituen kirol-jarduerak sortzen dituzten gastuen zati bat estaliko du, eta honako hauek baloratuko dira behin betiko laguntza ekonomikorako:
 - o Federazio-gastuak. Eta, zehazki, honako hauei buruzkoak: klubaren eta taldeen inskripzioa; jokalarien, entrenatzaileen eta ordezkarien lizentziak; federatutako fitxen kartoi meheak. Espresuki baloraziotik kanpo geratzen dira edozein arrazoiengatik ezarritako isunak..
 - o Lehiaketa Ofizialeko partidek (liga eta kopa) eragindako arbitraje-gastuak

b) Kirol Instalazioen erabileraren lagapena

- Erabiltzeko beharra dagoenean, udalaren beste kirol-instalazio batzuk doan lagako ditu, aldez aurretik eskatuta eta Udalak berak jarritako mugekin, eta beste elkarteren batek behar ez baditu.

B) AGURAINGO ORIAMENDI LEZAO TALDEA

- Diruz lagundutako jarduerak egitea.
- Irailaren 30a baino lehen, egindako jardueren memoria teknikoa eta memoria ekonomikoa aurkeztea, gastuak eta diru-sarrerak barne (baita helburu bererako jasotako diru-laguntzak ere).



- Diruz lagunduko diren kirolari guztien federatu-lizentzia edo Arabako Foru Aldundiaren Eskola Kirolean izena emanda duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.
- Diruz lagundutako jardueren gastuen egiaztagirak aurkeztea, dagozkion fakturak aurkeztuta.
- Udalari laguntzea boluntarioak jarrita, hala eskatzen duten jardueretan. 2024. urtean, hauek izango dira:
 - o 2 laguntzaile izango dira Agurain Herri Lasterketan, irailaren 29an, igandean
- Instalazioak klubarekin lotutako jarduera eta helburuetarako erabiltzea, erabilera horren erantzule izanik.

IRIZPIDE LINGUISTIKOAK

- Kirol taldeak jardueren eskaintza ele bitan zabalduko ditu: kartelak, liburuxkak, eskutitzak... Justifikazioa egiteko orduan eskaintza zabaltzeko eta jardueratan erabilitako hainbat eredu aurkeztuko ditu.
- Kirol taldeak eremu publikoan antolatzen dituen kirol-jardueretan (txapelketak, lasterketak...) euskara gaztelaniarekin batera erabiliko du: aurkezpenak, megafonia ... Zuriketan honen inguruko informazioa aipatuko du.
- Hitzarmena sinatzerakoan, Kirol taldeak Udalari jakinaraziko dio zein jarduera antolatu dituen eta zein hizkuntzatan ematen ari diren. Horretarako Udalak prestatutako plantilla bat baliatuko du. Helburu nagusia lehen hezkuntzako umeei eskaintza erabat euskaraz egitea izanik
- Hitzarmena sinatzerakoan Kirol taldeak bere euskara planean azaltzen diren zein helburu lantzen ari den aipatuko du, eta zein da egungo egoera. Horretarako Udalak prestatutako plantilla bat baliatuko dute.
- Kirol taldeak Udalaren ordezkari izango den kirolean euskara sustatzeko dinamizatzailearen lana erraztu beharko du, eta behar duen arreta eskaini.



- Udalak euskara ikasketak ordainduko dizkie (diru-laguntza bidez) Agurainen erroldatutako kirol begiraleei, beti ere, Udalak onartutako euskara ikasteko diru-laguntza deialdiaren oinarriekin bat etorritik
- Helburu hauen jarraipena, kirolean euskara sustatzeko dinamizatzailearen ardura izango da.

BERDINTASUN IRIZPIDEAK

- Kartelen eta diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueren sustapen-elementu gisa egiten diren testuen edukietako hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea. Emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate aniztasunaren balioak dituen irudia sustatzea.
- Diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea.
- Diru-laguntza jasotzen duen elkarteak animatzea berdintasunaren, hizkuntza ez-sexistaren eta abarren arloko prestakuntza sustatzera, Udalak urtean zehar antolatzen dituen ikastaro eta/edo tailerren bidez.
- Egindako jardueren memorian, jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua jasotzen duen informazioa jaso beharko da, sexuaren arabera bereizita.

HIRUGARRENA. - Hitzarmen honetan ezarritako diru-laguntza bateragarria izango da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik (nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko beste erakunde batzuetakoak) datozenak, hargatik eragotzi gabe diru-laguntza edo laguntza horiek arautzen dituen araudiak ezar dezakeena. Hala ere, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueren kostua.

LAUGARRENA.- Aguraingo Oriamendi Lezaio Taldearen jarduerak eten edo desagertzen bada, edo hitzarmen honetan jasotako klausulak betetzen ez badira, suntsiarazitza joko da, eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoak itzuli beharko ditu, legeriaren arabera, bai eta instalazioak libre utzi ere, baldintza eta egoera egokietan.



BOSGARRENA.- Era berean, Udalak hitzarmen hau mugaeguna baino lehen indarrik gabe uzteko ahalmena izango du, interes publikoko zirkunstantziek justifikatzen badute.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek 2024. urteko indarraldia izango du, gainerako klausuletan adierazitako baldintzak betetzen diren bitartean eta bi alderdietako batek berariaz uko egiten ez dion bitartean.

Agurainen, 2024ko apirilaren 25 (e)an



ALKATEA

AGURAINGO ORIAMENDI LEZAO TALDEA